LUCHAR POR EL SALARIO ES LUCHAR POR EL EMPLEO

Soldata dirua baino gehiago da

ELA EUSKAL SINDIKATUA

# Soldatak eta enplegua

## 4. Alternatibak eta proposamenak

MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

- Soldaten kontrako erasoak, bidegabea izateaz gain, erakutsitako ondorio larriak ditu
- Politika hauek goitik behera aldatu behar dira
- Hemen dituzue proposatzen ditugun alternatibak

## a) Enplegu duina eta eros-ahalmena

- Soldata igoerak KPI gainetik
  - Langile askoren soldata eskasa kontuan izanda, bizitza duina izateko
  - Ezinbestekoa da soldatak igotzea
  - Aberastasun banaketa bidezkoagoa lortzeko bidea da
  - Eta enplegua sortzeko modua

- Babes soziala maila duinera igo
- Gutxieneko soldata duina ezarri
  - Bizitza eta lan-baldintza duina ziurtatzeko
  - Frantzia eta Holandako mailara iritsi
- Aurrekontu- eta zerga-politikak goitik behera aldatu
  - Doikuntza politikek langabezia eta atzeraldia okertzen dute, ikusi dugun moduan

- Lanaldiaren murrizketa soldata murrizketarik gabe
  - Patronalak, enplegua suntsitzearekin batera, lanaldiak luzatzen ditu
  - Lanaldi luzeagoa, langabezia gehiago
  - Lanaldia 35 ordutara murriztea, soldata murriztu gabe, enplegua sortzeko politika bat da

- Arlo publikoa garatu, batez ere, Ongizate Estatuarekin lotutako zerbitzuak
  - Osasungintza, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, garraioa...
- Enplegu berdeen sustapena
  - Jarduera iraunkorrak sustatzeko
  - Egungo produkzio, banaketa eta kontsumo eredua aldatzeko
  - Enplegua sortzeko potentzial handia hainbat sektoretan: energia berriztagarriak, hondakin kudeaketa, lurzoruen berreskurapena...

# b) Gutxi batzuen mesedetan pobretzen gaituztenak agerian utzi

- Gobernatzen gaituztenek ardura zuzena dutela adierazi
- Patronalak langileen eskubideak erasotzen segi behar dela dioenean
- Bilatzen duena da irabaziak handitzea soldaten jaitsieraren kontura

- Confebask (SEA, Cebek, Adegi) eta CEN diru publikoaz bizi dira
  - Funts publikoak beraien kupulen interesetarako erabiltzen dituzte
  - Bere ordezkaritza ez dute inoiz frogatu
  - Paper erreakzionarioa jokatzen dute
  - Botere politikoa menpean dutela dakite
  - Auzitegi konstituzionaleko eta goreneko bozak konprometituak dituztela diote
  - Horregatik ez dute negoziatu nahi

- Gobernuak lanpostuak suntsitzen ari dira, zerbitzu publikoak kaskartzen
- Agerian utzi behar da zeintzuk ari diren, behetik gorako inoizko aberastasun transferentziarik handiena egiten
- Lan errentetara doan zatia murriztuz
- Kapital eta enpresa errenta handitzeko
- Krisia aitzakia ezin hobea da
- Norabide horretan doazen neurriak justifikatzeko

- Botere ekonomiko, finantzario, mediatiko eta politikoen arteko kontsentsua nabarmena denean
- Sindikalgintzak ezin die babesa eman
- Elkarrizketa sozialarekin jarraitu behar dela esanez
- Ez dago elkarrizketa sozialik
- Lan/gizarte eskubideen murrizketen inposaketa besterik ez dago

- Eredu horren kontra egin nahi duen sindikalgintzak
- Botere horien kontra borrokatu beharko du
- Botere hauei aurre egitea eta elkarrizketa sozialaren itxura ematea kontraesanean daude
- ELAk lehena aukeratu du

## c) Enpresetan antolatu eta mobilizazioa

- Gertatzen ari dena larria eta bidegabea da
- Arrazoia dugu, baina berdina egiten jarraituko dute
- Gauzak aldatu nahi baditugu
- Hau salatzeaz gain, kolektiboki borrokatu behar dugu

- Indar harremanetan hobetzeko:
  - Lan zentroetan antolatu behar dugu
    - Ezinbestekoa da langileen interesak defendatzeko
    - Enplegua eta lan-baldintzak defendatzeko erreminta da
    - Hauek ez daitezen patronalaren borondatearen menpe egon

- Lan-baldintzen kalitatea lan zentro bakoitzean dagoen errealitate sindikalaren ispilua izango da
- Antolakuntza erronka bat da
- Afiliazioak sindikatuaren autonomia bermatzen du botere politiko eta ekonomikoarekiko
- Beharrezkoa da afiliazio hori antolatzea negoziazio kolektiboa eta ekintza sindikala aurrera eramateko

- Mobilizazio sindikala eta soziala
  - Lan baldintzak hobetzeko
  - Enplegua defendatzeko
  - Aurrekontu- eta zerga-politikak aldatzeko
  - Mobilizatu ezean,
    geroz eta ahulago izango gara
    botere ekonomikoaren aurrean

- Ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren balioa aldarrikatu
  - Beti egon dira interes kontrajarriak
  - “Soldatak murriztu behar dira irabaziak handitzeko” diote
  - Guk, enplegu/soldata gehiago eta irabazi gutxiago nahi dugu
  - Mobilizazioak egon edo ez interes gatazka dago

- Ekintza kolektiboaren kontra ari direnei, ongi doakie
- Ez dituzte gauzak aldatu nahi
- Horregatik egiten dute lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko borroken kontra
- Guk gauzak aldatu nahi ditugu
- Horregatik balio handia eman behar diegu ekintza kolektibo/mobilizaioei
- Langile klasearen interesak defendatzeko

Soldata dirua baino gehiago da

LUCHAR POR EL SALARIO ES LUCHAR POR EL EMPLEO

ELA

EUSKAL SINDIKATUA